ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2021eko uztailaren 21a, asteazkena • 81 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## LEGUTIOKO UDALA

**Larrabea urbanizazioko etxeak edateko urez hornitzeko eta saneamenduko zerbitzuaren 2021eko bigarren hiruhilekoari dagokion zerga errolda jendaurrean jartzea eta diru bilketako epea adieraztea**

Hamabost egun baliodunez, ediktu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, jendaurrean egongo da Larrabea urbanizazioko etxeak edateko urez hornitzeko eta saneamenduko zerbitzuaren 2021eko bigarren hiruhilekoko zerga errolda, interesa dutenek aukera izan dezaten hura aztertzeko eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Errolda behin betiko onetsitzat emango da epe horretan erreklamaziorik aurkeztu ezean.

2021eko uztailaren 15etik irailaren 15era bitarteko egun baliodunetan (biak barne) ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, dagozkion ordainagiriak.

Ordaintzeko era.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Legutioko Udalak zuzenean kudeatuko du zordunketa ordainketa helbideratu den finantza erakundeen kontuetan, 2021eko irailaren 15ean.

Finantza erakundeetan helbideratu gabeko ordainketak (ordainketa gutunarekin):

— Udalaren bulegoetan, kreditu txartelarekin.

— Kutxabanken bulegoetan.

— Interneten bidez, Legutioko Udalaren webgunean (Nire Ordainketa).

Gomendioak.

Nola bankuko helbideratzeen altak eta aldaketak, hala bizileku aldaketak, gerora jakinarazpenak egiteko, Legutioko Udalean izapidetu behar dira.

Epe hori igarota, premiamenduko betearazte bideari ekingo zaio, eta ordaindu gabeko kuotei Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak xedatutako errekargua gehituko zaie.

Legutio, 2021eko uztailaren 12a

*Alkatea*
*JON ZUAZO ZUBERO*



Firmante: CN=ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARITZA - DIRECCION SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 211865
Fecha de firma: 2021.07.21 06:07:23 Z